
Muga guzien ginetik: Ustiapena kapituluka

Hasi aitzin:

- a) Liburuaren ezaugarriei so egiezu: azala, izenburua, idazlea, argitaletxea, argitalpen data...
- b) Denak ikusi eta (gibeleko bilduma barne): Zure ustez zertaz da liburua?
- c) Toki hau ezagutzen duzu? Afrikako herrialderik ezagutzen ote duzu? Nork aipaturik?
- d) Pertsonaiak izenda eta deskriba itzazu (hastapeneko orrialdean oinarrituz).

1. Kapituluak: Hoa Europara, seme!

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Non gertatzen da? Deskriba ezazu tokia testuko hitzak erabiliz.
- b) Nork igorri zuen Jalil? Zertako?
- c) Lagunekin joan zen; nola hartzen zuen bakoitzak partitzearen berria?
- d) Nora zoan hartu zuten autobusa?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Alorra – funtsean – herrestan

Erranaldi hau esplika ezazu:

13. or.: «Ezponda hegi batetarik jauzi egitea bezala zen; eta, azen ontzeko, norbaitek pusaturik!»

2. Kapitulua: Autobusean tinki-tinkia

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Zer ibairen ondoan pasa ziren gazteak ? Ibaiaren bi izenak eman itzazu.
- b) Mugazainekin kalapitan: zertako kexatu zen Jalil? Eta zertako ez zen gidaria Jalil bezala samurtu?
- c) Eguzkiaren eta ilargiaren ipuinean, zer ziren «ilargiaren haurrak»?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

oharkabea – bozgorailu – arrangura

Erranaldi hau esplika ezazu :

18. or.: "marranta horrek larria iduri du, erran zuen Désirék." Zertaz mintzo da Désiré?

3. Kapitula: Basamortuko haizea berri ekarle

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Lagunetan, zein gazte zen mekanikan aditua?
- b) Zer herrialdetan ibili ziren gazteak? Nolakoak ziren hango jendeak?
- c) Zer gertatu zen lehen autobusarekin Agadez hirian?
- d) Ginearrarekin hitz egitean, zertaz ohartu ziren gazteak ?
- e) Timiako « baratzea » deskriba/marraz ezazu (deskribapenak baliatuz).
- f) Nola gainditu zuten Libiako muga gazteek?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Eskuratu – hotzikara – irribarretsua – solasa

Erranaldi hau esplika ezazu:

22. or.: « Orenak jin, orenak joan ». Zer erran nahi du hemen idazleak ? Ideia bera adieraz ezazu beste gisa batez.

Gogoeta (bakarka)

Gazteek beren bi erlijioak konparatzen dituzte laburki. Bakoitzaren sinesmena zein den zehaztu ondotik, haurrek eman elementuak taula batean bil itzazu.

4. Kapituluua: Libiako hiri nagusirako bidean

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu

- a) Zer zen Désiréren ametsa?
- b) Zer zioten amets hortaz bere lagunek? Zertako? Eta zuk zer pentsatzen duzu?
- c) Tripolin sartzeko baliatu zuten kamioiak zer garraiatzen zuen? Zer ebatsi zuen Désirék?
- d) Nola ikusi zuten Tripoli hirian sartzen zirela?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Helmuga – sabelean – nerabeak – eztabaida

Erran molde hau esplikatu ezazu :

36. or.: « Zureko hesola makur zenbaitek nola edo hala xutik atxikitzen zutena ». Zure gisan errazu beste molde batez ideia bera.

Gogoeta (bizpahirunaka)

Désiréren ebasketaz gazteek ukan zuten eztabaida irakur ezazu eta zure iritzia eman: haiekin izan bazina, nola ihardukiko ote zenukeen? Aipa ezazue denen artean, bakoitzaren iritzia argiki zehaztuz.

5. Kapitulua: Tripolin ongiatorririk ez

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu

- a) Jalilen erranetan, zer lan egin zezakeen Désirék? Lazinak?
- b) Zertaz okupatu zen Jalil besteak lan bila joan zirenean?
- c) Azpiko proposamenen bukaeran gazte egokiaren izena emazu:
 - Mekanikan, auto konpontzen :
 - Ardi eta ahuntz zaintzen :
 - Jostun baten dendan josten :
 - Auto garbitzen :
- a) Garajea, zertaz ohartu ziren Nura eta Lazina? Xuxen (X) ala oker (O) :
 - Larru iluneko langile bakarrak ziren garaje hartan:
 - Noiznahi pausak egiten ahal zituzten:
 - Beren lankideek noiz nahi pausak egiten ahal zituzten baina haiek ez:
 - Ez ziren pagatuak izan hilabete bukaeran:
 - Ongi pagatuak izan ziren hilabete bukaeran:
- a) Nork du lehenik lana atzeman? Eta nola sartu da lo egiteko lekura? Zer gertatu zaio zure ustez? Zer erabaki dute lagunak ondorioz?
- b) Zer harreman zuten beste gazteek beren nagusiarekin? Deskriba itzazu.

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Menturatzen – hazkuntza – erasialdiak

Erran molde hau esplikatu ezazu:

45. or.: « Désiré eta Lazina burumakur itzuli ziren ». Zure gisan adieraz ezazu ideia bera, beste molde batez.

6. Kapituluak: Esklaboak ote?

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Nola deitzen zen ospatu zuten egun hura? Zer ospatzen da egun horretan? Ikerketa egizu: Libian baizik ez ote da ospatzen?
- b) Nor zen Amina?
- c) Zer gertatu zen futbol partidan?
- d) Zer utzi behar izan zioten Nurak eta Désirék beren nagusiari ? Eta zertako ez ziren ados horrekin Jalil eta Lazina?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Meskita – barreiaturik – minbera

Erran molde hau esplikatu ezazu :

53. or.: « Kexatua, gaitzitua, afruntatua, ez zekien gehiago nori zer erran, oihu egiteko gogo zuen ». Zertako ?

Gogoeta (bakarka) : Jalilek dio beren telefonoak nagusiari uzten badizkiote, beren libertatea galduko dutela. Zer diozu horretaz? Egizu lauzpabost lerroko idazlan labur bat galde horri erantzuteko.

7. Kapitulua: Libertate galdua

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Gazteek zer ikusten zuten lehen aldikotz? Berriz adieraz itzazu horren deskribatzeko baliatzen dituzten hitz eta erran molde zenbait.
- b) Azkenean zein gazte zen sartu urean?
- c) Zertako lau gazteak enplegatu zituen nagusiak garajea ? Lau lagunek hautarik izan ote zuten?
- d) Denborarekin, lan egiteko baldintzak larritu ziren gure lau gazteentzat. Zerk erakusten dizu? Testuan bila itzazu elementuak.
- e) Garajea, mekanika lanetan edo auto garbitzen ari ote ziren bakarrik? Zeri pentsarazten dizu gazteen egoerak?
- f) Nola biltzen zuen dirua nagusiak gazteak baliatuz?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

malda – zerumuga – urperatzen – ukabilkada

Gogoeta (bizpahirunaka): « Beraien istorioa, ordu arte taldean idazten ari zirena, beste norbaitek bereganatzen zuela. » Nola ulertzen duzu Jalilen gogoeta hori? Ados ote zara harekin? Esplika iezaiezu zure lankideei.

8. Kapituluua: Esperantza izpia

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Jin berria zen gizonak zein hizkuntzatan mintzatzeko usaia zuen?
- b) Zer proposatzen ote die hiru egunen buruan egitea ? Zeren hastapenean izan da?
- c) Zeren beldur ote zen Désiré?
- d) Noren bidez kaustu ote zuten Kulubara berriaren igortzea?
- e) Nola etzan ote ziren gazteak azken gauean?
- f) Zure ustez, zer erran ote zioten nagusiari Jalilek eta Désirék partitzean?

Erran moldea : 66. or.: « Europarako azken urratsa biharamunean zutela errateko ». Zer erran nahi du hemen idazleak ?

Bilduma: Afrika utzi aitzin

So egin iezaiozu orain arte gazteek egin duten bidaiari:

Zer herrialdetan ibili dira? Egizu herri horien deskribapen orokorra (irizpideak sartuz);

9. Kapituluak: Lehen aldiz bereziak

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Hondartzara joan eta laster preso sentitu ziren. Zertako zure ustez?
- b) Zertako ez ziren berehala partitzen?
- c) Nondik etorriak ziren beren ondoko jendeak, Europara joan nahi zutenak? Mapa batean xerka itzazu herrialde horiek.
- d) Nola bereziak ziren lau lagunak, barkuetara igoatean? Zergatik?
- e) Nondik atera zuen dirua Jalilek? Nolaz lortu zuen dirua hor gordetzea?
- f) Nolakoak ziren barkuak? Deskriba itzazu testuko elementuak erabiliz.
- g) Zenbat jende igan ote zen txalupa bakoitzean?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Azpildura – txalupa – petatxuak

Sinonimoak bila itzazu:

Testuan xerka itzazu « elkarrizketa » hitzaren bi sinonimo.

Gogoeta (bakarka): Txalupa abiarazi eta, pasatzaileek ihes egin zuten hondartzara, gasolio bidoiak eramanez. Zergatik? Idatziz deskriba ezazu haien egin moldea, hiruzpalau lerroz.

10. Kapitula: Itsasoaren menpe

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Zertan zen berriz Nura goibeldu?
- b) Nolako neska zen Nura, Jalilen gogoan?
- c) Zer gertatu zen tenpestak txalupa inarrosi zuenean?
- d) Zer hizkuntzatan zen jendeek kantatu zuten otoitz ezti hura? Mapa batean koka ezazu hizkuntza hori mintzatua den eremua.
- e) Nola ziren bidaiariak txalupan bigarren egunean?

Hiztegi berezia : testuan aurki itzazu “urostasun” hitzaren erranahi hurbila duten beste hiru hitz. Besterik ezagutzen ote duzu? Zein ote?

Erran molde hau esplika ezazu :

77.or.: « Xakur musulmana eta gatu katolikoa ». Nortaz mintzo da hemen idazlea? Zer harreman zuten? Esplika ezazu erran molde hori.

11. Kapitula: Europako atarian

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Urrunean tita bat ageri zen. Zer izan zitekeen?
- b) Non zuen min Jalilek? Zergatik?
- c) Zer eman zioten lehen itsasontziko jendeek barkuan ziren dohakabeei? Zertako ez zituzten salbatu?
- d) Nor zen « Guardia Costera » idatzia zen itsasontzian? Zertarako etorriak ziren?
- e) Zure ustez, zertako negar egin zuen Nurak?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

ataria – mututurik – dohakabeak – delitua

Azpiko erranaldi honen frantsesezko itzulpena xerka ezazu:

“Txaluparen brankan eta popan” :

Gogoeta: Testuan hartu pasarte hau (84. or.) zure gisan esplika ezazu: “Amaren ametsa zen. “Mugak gaindi itzazu”. Ottoen eta ttantten ametsa zen. Kusien ametsa; Bamakoko Kuluba auzoko guzien ametsa zen. Baina Jalilena zena? Zer nahi ote zuen Jalilek?”.

Ikerketa: Bambara hizkuntzan errezibituak dira. Xerka ezazu hizkuntza hori non mintzatua den. Bada beste hizkuntza bat hortaz biziki hurbil dena (kasik bera dela erraiten dute); nola deitzen da beste hizkuntza hori?

12. Kapitulua: Lerroan geldi!

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Zer uhartetara heldu ziren gazteak? Deskriba ezazu uharte hori idazlearen hitzak baliatuz. Marrazki bat egin dezakezu.
- b) Europan sartu direa? Mapa batean so egin ezazu nora heldu diren.
- c) Zer erran dezakezu gazteen libertate sentimenduaz?
- d) Amak Jalili zer kontseilu eman ote zion? Zertako ez dute hori salatu behar?
- e) Zertako ez zuen erran Jalilek egiazki zenbat urte zituen?
- f) Azkenean nola lokartu zen gure mutila?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

aserik – gaizkondu – xinaurriak

Erran molde hau esplika ezazu :

94. or.: « Bitxi da, Europan, dena lerro lerro egiten ote da? » Zergatik hori erraten du Jalilek? Zer animalari pentsarazten dio horrek?

13. Kapitula: Boga, bizi hobeari buruz

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Kanpamentu horietan:
 - a. Mutiko eta neskak elkarrekin direa?
 - b. Mutiko eta neskak bereiziak direa?
- b) Jalilek zer jakin zuen Désiré eta Lazinearen txalupaz, medikuarekin hitzegitean?
- c) « Migranteen kantua » nork zion kantatu Jalili? Idatz ezazu kantua hori zure kaieretan, eta ilustra.
- d) Gazteak nora heldu ziren ondotik? Nola deitzen dira eskualdea eta horren hiri nagusia?
- e) Nura gabe izanik, zerren eskasa sentitzen zuen Jalilek?

Hitzak bila itzazu:

Hitz hauek testuan dira: *sufrikario* ; *urradura* ; *sakrifizioa*

Hitz horien irakurtzean, ezagutzen duzun zein hitzi pentsatzen duzu?

Ulermena: « Hezur azterketak » zer dira ? Zer frogatzen dute ?

Gogoeta: Testuan, Jalilek bi etorkin gurutzatzen ditu, bat Gabondarra eta bestea Somaliarra: Zergatik joan dira beren herrietatik bi gizon horiek? Bakoitzaren arrazoiak esplika itzazu. Entzuna ote duzu holako arrazoi batzuegatik ihes egiten dutela etorkin zenbaitek?

14. Kapitula: Afrikartasuna

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Liburu osoan, hiru baloi mota hunkitu ditu Jalilek: oroitzen zarea nolakoak ziren?
Zergatik halako garrantzia du Jalilentzat?
- b) Nola deitzen zen Afganistandar gaztea?
- c) Jalil Afrikarren portaerarekin ados ote zen?
- d) Ebasketa bat gertatu zen. Zer izan zen ebatsia?
- e) Ebasketa horren ondotik, Jalil baztertua izan zen. Zergatik?
 - Futbolean galdu zutelako harengatik?
 - Afrikar bati irratia ebatsi ziolako?
 - Hura baino zaharrago zen Afrikar bati iharduki ziolako?
- f) Zertan adostu ziren Jalil eta Kiran?

Hiztegi berezia (1): Afrikako herri zenbaitetako futbol talde nazionalen izengoitiak aipatzen ditu hemen idazleak. Hiztegian xerka ezazu zer animalia diren. Ondotik, Afrikako beste bi herrialdetako zango baloi taldeen izengoitiak aurki itzazu interneten.

Hiztegi berezia (2): Azpimarratua den hitza esplika ezazu, zure gisan:
“Erregulariki sakreka artzen ziren elkarri.”

Gogoeta: Lehenik bakarka eta ondotik binaka: Testuko adierazpenak erabiliz, esplika ezazu erranaldi hau:

102. or.: “Egun hartan, “Maliarra” baino gehiago, Afrikarra sentitu zen Jalil”.

15. Kapitula: Etorkinak kanpora!

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Zer berri txar eman zion Kiranek Jalili? Nori pentsatu zuen memento hartan Jalilek?
- b) Nola egin zuen Kiranek lehen aldian kanpamentutik ateratzeko?
- c) Non gorde ziren Nura, Jalil eta Kiran eskapatzeko? Bakoitzari dagokion erantzun zehatza emazu.
- d) Europako zein hiritan zuten libertatea ezagutu? Deskriba ezazu hiri hori nola ikusten zuten hiru gazteek.
- e) Zer aldarrikatzen zuten manifestaldiko jendeek?
- f) Nola ulertu zuen hori Jalilek?

Hiztegi berezia

Hitz hauek hiztegian xerka itzazu eta erranaldi baten idazteko erabil.

Ausartena – engoitik – besarkatzeko

Gogoeta: Irakur ezazu.

Entzun ziren oihuak: “Migranteak kanpora”! “Europa ez da Afrika!” “Lanbideak hartzen dizkigute!” “Gure haurrentzat beldur gara!”

Taldeka: zer erran dezakezue holako oihuez?

Elkarriketa (binaka, aldizka): Asma ezazue Nura eta manifestari baten arteko elkarriketa zer izan litekeen, kexatu gabe egiten balute.

17. Kapitula: Ura iturritik bezala

Ulermen galderak

Erranaldiak eginez erantzun ezazu.

- a) Nori idazten die Jalilek?
- b) Dena egia ote da? Gezur bat bederen agerian ezar ezazu.

Idazlana: 7-8 lerroko idazlan bat egizu, azpiko galderetan oinarrituz.

Azken gutun hori irakurri eta, zer iduritzen zaizu? Ulertzen ote duzu Jalilen gutun hori? Zergatik hori idazten du? Zer ondorio izan lezake Kuluba auzoko biztanleengan?

Liburu osoa irakurri ondotik:

- a) Nola deskriba dezakezu istorio hori: tristea – iluna – esperantza ekartzen duena – irringarria
- b) Zein pertsonaia zaizu gehienik gustatu? Eta zein gutienik? Zergatik?
- c) Zer segida pentsatzen ahal duzu istorioari? (5-10 lerroz?)
- d) Talde lana : Etorkinik badea Euskal herrian? Non? Horiek bizi izan duten “bidaiaz” interesatua ote zara?